

## Nuarben

**B**eti galdetzen diot neure buruari: zergatik zuten jendeak egun hartan, larunbata zuten, asko lanera joango zirenean goizean, egun osoz ere bai agian, edo ez, akaso ordurako hedatua egongo zen larunbata jai egiteko pentsamendua, jendeak atsean hartuko zuten larunbatetan, mendira joango zirenean egun pasa, zergatik zuten jendeak orduan, zergatik zuten nire gurasoek, zergatik zuten nire herritarrek, zergatik zuten azpeitiarrek, zarauz-tarrestek, izan ote zen manifestazioarik, protestarik, istilurik, sasiaren zenbat jende ote zebilen, larun-

bat hartan zein izan ote zen hizketa gaia tabernetan, kalean, zergatik zuten jendeak sukaldeko babesean, nolakoak ote zituzten kezkak, zergatik zuten ziren fusilamendu haiek jendearentzat, larunbat hartan bota al zuten telebistak futbol partidari, zein kantu jarri zituzten Herri Irratiak, eta gero, zein izan ote ziren *Diario Vasco*-ren titulua 1975eko irailaren 28 hartan, zergatik zuten jendeak, mezatarak joan zirenean,



**Jira**  
Xabier Gantzarain

otoitz egin zuten fusilatuen alde, zergatik zuten Nuarben, zergatik zuten Maria Otaegik, zergatik zuten Badajozen, zergatik zuten Silvia Carreterok, zergatik zuten norberetako historia beste historia luzeago eta ilunago batekin gurutzatu zitzaizkaien?

## Zapaldua

**Z**apaltzen gaituen zera handi horren presentzia handiegia da euskaldunontzat: nortasun agirian daramagu, gure hizkuntza ulertu nahi ez duen funtzionario bakoitzarengan dago, animatzen ditugun futbol taldeek nazioartetako ligetan jokatzearren erruduna da... Hori nahikoa ez, eta askotan, bizitzak berak areagotu egiten digu zama hori. Espainiako faxisten altxamenduan parte hartu zutenak eta berrogei urtez gure bide bazterrak hildakoz bete zituztenak ohean etzanda itxaron zioten heriotzari, lasai; adinduta. Espainiako demokraziak, demokrazia izan



**Bira**  
Onintza Enbeita

balitz, epaitu eta espetxeratu beharreko guardia zibilei domina eman die. Herriaren dirua ostu duten politikariak enpresa handien zuzendaritzetan kokatu dituzte, eta guk, lubakian gordeta, hori guztia ikusi dugu gure begiok. Euskal preso politikoei aspaldi behar zuten Euskal Herrian, kalean, etxean, baina ez daude. Eta orain pankartaren atzeko pauso isiletan bide lagun izandako Juan Mari joan egin zaigu; honezkerio etxean behar lukeen semea izan besarkada eman gabe. Orain ere zapaltzaileak egin du zati handi bat, aita eta semea behar baino gehiago urrunduz fisikoki, eta bizitzak egoera errematatu du. Nahi duzuen esango duzue, baina ez da justua; bizitza ez da baten justua zapaldukin.

**Zuzendaria:**  
Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:**  
Iñaki Petxarroman  
**Edizio arduraduna:**  
Andoni Alvarez  
**Argitaratzailea:**  
Euskal Editorea SM  
**Publikatzailea:** Bidera publikatzailea  
**Lege gordailua:**  
SS-0662/03  
**Batzorde parekidea:**  
071284059

**Egoitza nagusia:**  
Martin Ugaldede kultur parkea.  
Gudarien Etorbidea, z/g.  
20140 Andoain.  
**Telefonoa:**  
(0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:**  
www.berria.info  
**Posta elektronikoa:**  
berria@berria.info  
**Publikatzailea:**  
publi@bidera.eu  
**Harpidetza saila:**  
(0034) 943-30 43 45

**Date:** 12/02/2012  
**Exemplar:** 2.682  
**Editore:** Euskal Editorea S.L.  
**Directeur de publication:**  
Martxelo Otamendi  
**Comission paritaire:**  
071284059  
**Delegation Labour:**  
Lisses 3, 64100-Baiona.  
Tel.: (0033) 559256220.  
Fax: (0033) 559254303.  
E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6.  
Posta kodea: 01008  
Gasteiz. Telefonoa:  
945-15 04 52. Erredakzioko  
faxa: 945-14 83 07.  
Posta elektronikoa:  
araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,  
3. C. Posta kodea: 48001  
Bilbo. Telefonoa:  
94-435 26 00. Erredakzioko  
faxa: 94-423 49 75.  
Posta elektronikoa:  
bizkaia@berria.info.  
**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta  
kodea: 64100 Baiona.  
Telefonoa: 559-25 62 20.  
Faxa: 559-25 43 03.  
Posta elektronikoa:  
lapurdi@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratxeko Monasterio,  
45, 13. Posta kodea:  
31011 Iruñea. Telefonoa:  
948-36 66 22.  
Publikatzailea: 948-36 66 23.  
Posta elektronikoa:  
nafarroa@berria.info.

**berria**

# EHko Egiaren batzordea: abiapuntua

**Jon M. Landa**

**EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea**

**A**sko hitz egiten ari da aspaldi honetan Euskal Herriaren iraganaz eta gertatu diren giza eskubideen urraketez. Eta egia-batzorde baten beharraz.

Egia-batzordeak, ordea, eduki eta forma oso desberdinak izan ditu historian zehar hura erabili duten herrialdeei begiratuz gero. Eta normala da, azken buruan horrelako erakunde bat bai edukiz bai formaz *ad hoc*, hau da, kasuz kasu, taxutu behar baita, herri jakin baten arazoek ekiteko. Hortaz, gure herriaren gertatu diren aurrean nolako egia-batzorde beharko genuke?

**EDUKIA.** Espainiako Estatuaren giza-eskubideen urraketak zatika eta banaturik arautu dira. Zatika, urraketa guztiak kontuan hartu ez direlako: adibiderik argiena, Estatuaren indarkeria osatzen duten urraketak —torturaren bitartez, poliziaren gehiegikerien bitartez, talde parapolizialen bitartez, inkontrolatu zein terrorismo-taldeen bitartez, espetxe barrukoak...—. Zatika, 1977ko amnistiek hainbat urraketa estalpean utzi dituztelako. Baina zatika ezezki, banatutako eran, «lastertasun» ezberdinez sustatu dira aurre egindako urraketen tratamendua: horra hor, batetik, Terrorismo Biktimen Legea (29/2011 Espainiako eta 4/2008 Euskadiko), eta, bestetik, Memoria izeneko (52/2007 Legea). Bietan hildakoak, zaurituak eta oso urraketa larriak izan arren, estandar juridiko eta erantzun desberdinak izaten ari dira.

Hitz gutxitan: berdina desberdin tratatzen da.

Horren aurrean egia-batzordearen goiburua, lehenengoa, zera izan beharko litzateke: larritasun berbera duten urraketa guzti-guztien tratamendua bateratzea. Eta bigarrenik osotasuna egiten joatea, ofizialak ez diren urraketak argitaratu atzeratzen. Horrek eskatzen du, eta larrietasunetik hasita, bizitza-eskubidea (hildakoak), osotasun fisikoa eta psikikoa (lesionatuak), edo askatasuna —sexu-askatasuna zein mugitzeko askatasuna batik bat— modu larrian jasan duten urraketa guztien egia azalaraztea: hots, funtsean, ETAK hil, bahitu eta lesionatutakoak; Estatuak hil, bahitu eta lesionatutakoak. Horiek izan behar dira, gure gizartearen aurrean aurrez aurre begiratzeko moduan eta zalantza barik jakiteko moduan argitu behar direnak.

**MODUA.** Egia ateratzeko modua, ordea, egokia behar da izan. Ezin da edozelan egin. Prozesuan dago, lehenik eta behin, gakoa. Gertatu denaren irudi osoa, sinesgarria eta denona izan behar litzateke helburua. Oraindik ere baten bat baldin badago kontu hauekin politik txikia egiteko gogoz, jarreraz edota jardunez, lan honetatik kanpo gelditu beharko litzateke herriaren onerako. Bukatu da norberaren ondare ideologikoaren aldeko egia-lana egiteko zitekeen giza-eskubideen kulturara behar bezala eta maularik gabe barneratuta izan bagenu. Dena dela, orain egia-batzordea eraikitzea eta bultzatzea herri-gai bilakatu beharra dago, kultur politikoko guztien ondare. Hori lortzea, ordea, ez dator zerutik: prozesua sortu eta babestu beharra dago.

Urraketa larrien mapa sinesgarria eta denona sortzeko bi baldintza bete behar dira lehenengo fase batean: bata, gobernu —bai Eusko Jaurlaritza, bai Aldundiena, bai gaurkoa, bai etorriko dena— kanpo gelditu behar da. Gobernuak ez dute familia ideologiko guztiak ordezkatzeko egokitasunik. Bultzatu beharko dute egia-lana, finantzatu beharko dute egia-batzordea edo nahi den izenez funtzio hura betetzen duen erakunde. Baina ezin du batzorde horren barruan kontrola eduki. Orain arte Eusko Jaurlaritza ibilbide bat egiten joan dira, ETAREN biktimekiko funtsean. Estatuaren biktimekiko, ordea, ibilbidea hasitapenetan dago. Dena dela bietan formula berbera saiatzen ari da: gobernuak bultzatzen du eta ahalegintzen da Legebiltzarraren sostengua ahalik eta zabalaren lortzen. Formula horrek daukan ahulezia nagusia bada lana ezin dela babesu politikari setakeriaz hura erabili nahi dutenean. Horregatik heldu da formula-aldaketa egiten hasteko. Gobernuak ibilbidearen lidertatik kanpo gelditu behar da giza-eskubideen politikak, biktimen politikak eta bereziki «gia-

ren osagaiak» erabakitzerakoan. Eta, orduan, nor arduratuko da?

Hemen, bigarren baldintza: ideologia-familia guztien artean autoritateak duten pertsonak osatu behar dute batzordea. Eta autoritateak esan nahi du sinesgarriak izango direla egia bilatzerakoan. Bitan pentsatu beharko lukete gure politikariak zein puntutara ino memoria-zentroak eta antzekoak sortzeko moduan gauden, sortzeko unean denon edo ia denon kontsentsua ez badute. Zentro horiek ez badute jende anitzaren konfiantza, borroka politikoa elikatzeko balioko dute, ez ordea gai minberotan lokarriak askatzen joateko. Hortaz, lupaz bada ere, bilatu beharko dira pertsona egokiak, alderdi politikoei at, sen onez eta modu independentean, giza-eskubideen arauak bakarrik men eginez lan egingo dutenak. Kosta ahala kosta autoritate unak bilatu eta topatu beharko ditugu, herri txiki honetan denok elkar ezagutu arren eta denok nonbaiten «kokaturiko» egon ei arren.

Batzuetan, aurrera egiteko gelditu beharra dago. Orain arte egin den lana biktimen alorrean ez da hutsala izan. Baina egoera politikoren aldaketak are argiago uzten ari da beste moldea behar dugula: alegia, egia-batzordea. Erakunde berri honek, hortaz, orain arte egin dako jasota —aterako diren Dekretuena barne horien edukia duina bada— egia ateratzeari lehentasuna eman beharko lioke, ahalik eta herriaren gehiengo oso zabalak esan ahal izan arte: «Hauxe da giza-eskubideen urrakete osatzen duten mapa». Hori lortzen ez badugu, orain arteko eztabaida sektarioari kateaturik jarraituko dugu, hildako eta lesionatuak elkarri aurpegiaratu. Egia-batzorde on batek, ordea, egia prepolitikoa sortzeko zimentarria izango genuke, atzean gobernu eta legebiltzara lagun, baina interferituko gabe. Indarkeria eta politika ezberdintzeko hainbat aldiz eskatu duguna ez al da garaia ideologia-familia guztiek haien buruei eskatzeko? Errore eusteko jaiok garen euskaldunok ez gara ba gauza izango?

Oraindik ere baten bat baldin badago kontu hauekin politik txikia egiteko gogoz, jarreraz edota jardunez, lan honetatik kanpo gelditu beharko litzateke herriaren onerako